

hariak

2023ko abendua

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Argitalpen honetarako, zenbait erakunderen laguntza izan dugu; batetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) laguntza, 2021eko proiektu honen esparruan: *Euskal-kolonbiar artikulazioa, aldizkako pandemiaren garaian beste hezkuntza posible bat esperimendatzeko, ikasteko eta komunikatzeko*; eta bestetik, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) laguntza, 2022ko proiektu honen esparruan: *Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa. Herritartasun globala eraikitze konpromiso sozialaren proposamena, pandemia osteko testuinguruan*. Testuen edukia Hegoaren erantzukizuna da soilik, eta ez du, halaber, GLEA eta AECID erakundeen iritzia islatzen.

Argitaratze kontseilua:


Inmaculada Cabello Ruiz
Juanjo Celorio Díaz
Sandra Dema Moreno
Alejandra Boni Aristizábal
Joseba Sainz de Murieta Mangado
M^a Luz De la Cal Barreda
Jone Martínez Palacios
Jaume Martínez Bonafé
M^a Jesús Martínez Usarralde
Gema Celorio Díaz
Amaia del Río Martínez

Lege-gordailua: BI-1805-2016

Hariak, 14.zk, Aniztasunak eta artikulazioak,
2023ko abendua

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Azaleko argazkia:

Marina Gallardo Izquierdo 

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da,
eta horren lehengaia baso-kudeaketa
iraunkorraren bitartez eskuratu da.



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Finantzatzaileak:



Argitaratzailea:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 · 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 · 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 · 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.eus



aurkibidea



2

editoriala

Aniztasunak eta gizarte eraldaketarako hezkuntza
Inmaculada Cabello Ruíz

4

sakonean

Aniztasun feministak, antirrazistak eta dekolonialak elkarri lotu.
Hezkuntzan behar duguna
Juanjo Celorio Díaz eta Amaia del Río Martínez

12

solasean

Oso garrantzitsua da Europak ere bere burua pentsatzea
Lia Pinheiro Barbosa

20

ekin lanari

Gure jardunazalantzan jartzea, arrazakeria baztertze aldera
Greta Frankenfeld eta Fiona Montagud

Finantzaz Haratago, Finantza Etiko eta Alternatiboetako Hezkuntzaren Euskal Sarea
Javier Eguiara Arrazola

24

begirada konprometituak

zinema/dokumentalak La historia de todas nosotras •

Es por tu seguridad. Engranajes institucionales de la islamofobia

argitalpenak Aprendizajes del Movimiento Zapatista. De la insurgencia armada a la autonomía popular • Fronteras: Necropolítica, violencias, racismos y activismos feministas migrantes

erakundeak Asociación Intercultural para la promoción y el empoderamiento de las mujeres gitanas de Euskadi • Asociación Antirracista por los Derechos Humanos

ezinbesteko agenda Garapenaren Ikasketei buruzko Nazioarteko VII. Kongresua “Bidezko trantsizioak eta hitzarmenak garapen jasangarrirako” • Nazioarteko XIX. Kongresua eta Unibertsitate eta hezkuntza inklusiboaren XXXIX. jardunaldiak, “Inklusioaren bidea saretzen”

28

matxino artean

Las fronteras en la tierra y en el cuerpo son ilusión y control
Otto Etraud/Toto Duarte (Metro21)

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

*“Bazterrean egotea osotasunaren parte izatea da,
baina gorputz nagusitik kanpo”*
bell hooks (1984).
Feminist Theory: From Margin to Center

Aniztasunak eta gizarte eraldaketarako hezkuntza

Aniztasunak errealitatea eratzten du. Gorputz, subjektu, klase, etnia, kultura, hizkuntza, hizkera, orientazio, lurralde, ekosistema eta abarren aniztasunak. Aniztasunak inguratzen, biltzen, definitzen gaitu. Aniztasuna gara. Zalantzarik gabe, aniztasuna aberastasuna da.

Ugaritasuna, ahotsena, subjektu politikoena, kolektiboena... Plurala da, berez, lurralde desberdinetan kokatuta eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren (GEH) sarean korapilatuta gaudela begiratzen dugun aniztasun hori. Ahots bakar batek, begirada bakar isolatu batek ez luke inoiz hezkuntza-prozesu eraldatzaile eta kritiko bat eratu. Subjektuen pluraltasuna, begiraden, sareen, aliantzen eta aliatuen konplexutasuna, hezkuntza ahalduntzailea bultzatzeko. Ondorioz, zilegi da berriro gogoeta egitea “mundu-sistema” nola funtzionatzen eta eratzten den galderaren inguruan, nola lortzen duen errealitatearen eraikuntza binario, asimetriko eta polarizatua ezartzea, non hegemonia monolitiko bat, kontakizun bakar bat, gorputz, lurralde eta hizkuntzen homogeneousazioa eta “garapen?”-eredu onargarri bakar bat inposatzen den.

Bestalde, zibilizazio-krisiaren larriagotzea ikusten ari gara (gerrak eta gatazka armatu genozidak), eta sistema estruktibistaren alderik gordinena erakusten digu; horrek milioika pertsonen bizitza duina izateko aukera kentzen die.

Pertsona horiek ez dira (gara) bazterrekoak, eta haien borroka eta disidentzietako asko eraldaketarako ikaskuntzarako adibideak dira planetako hainbat tokitan. Gorputz/lurralde desberdin asko, adierazpen politiko anitzekoak, eta emantzipazioaren helburua partekatzen dute.

Ahots horietako batzuk [Hariak](#) aldizkariko ale berri honetan agertzen dira. Proposamenak eta funtsezko nozioak ekartzen dizkigute, artikulazio handiagoa ehundu eta aniztasuna hezkuntza kritikorako ehungailu gisa hartzeko. Ikuspegi horietako batzuek etorkizun eraldatzaileak ehuntzen dituzte jada, eta feminismo dekolonial, antirrazista eta antikapitalistaren hariak dira, eta patroirik gabe (ez jabe, ez eredu) ari gara haiek ehuntzen. Jarraian, aniztasunak eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzak erronka gisa aurkeztzen dizkiguten ideia-indar batzuk zerrendatuko ditugu, eta ale honetan zabal garatuta aurkituko ditu:

Pentsamendua eta ezagutza dekolonizatzea. Ikuspegi dekoloniala da seguruenik GEHren erronka nagusietako bat. Aski finkatua eta legitimatua dago gizakiaren jardute zuri eta koloniala. Hura sostengatzen duten boterezko hierarkia estruktural eta sinbolikoak deseraikitzea emantzipaziorako bidea irekitzea da.

Interkulturalitate kritikoa. Ezinbesteko ardatza da monokulturalismoa desmuntatzeko. Interkulturalitate kritikoa emantzipazioaren zerumuga zabaltzen laguntzen digu; funtsezkoa da; botere hegemonikoaren ardatzak zalantzan jartzen ditu, eta beste subjektu batzuek izan behar duten espazio propioa eskatzen du. Uniformetasunaren egituraren euskarriak desmuntatzea dakar, eta aniztasuna aintzat hartzea.

Disidentzian bizitako bizitzak. Nagusi ziren mandatuekin hautsi zuten hainbat subjektu/kolektiboen erresistentziarako eta disidentziarako ekintzak ezagutu eta kontakizun historikoan kokatu behar ditugu. Jarduteek erresistentziarako moduak erakusten dizkigute, eta haien historiak leku bat izan behar du akademian.

Ikuspegi ekosoziala. Neurrigabeko krisi klimatikoaren aurrean kontzientzia hartu eta ekintzara pasatzea gehiago atzeratu ezin den beharra da. Ekosistemen aniztasuna desagertzen ari da, eta krisi honen ondorioek milioika pertsonaren bizi-baldintzei eragiten diete, bai eta etorkizuneko belaunaldien bizitza arriskuan jarri ere. Ikuspegi ekosoziala GEHren DNAn txertatuta dago.

Erresistentzia historikoa aintzat hartu eta ikustaraztea. Aniztasunak ezagutzaren zatiketari aurre egiten erakusten digu, indibidualtasunaren enfasia sostengatzen duten egiturak desmuntatzen, borroketatik eta kolektibotik abiatuta teorizatzen. GEHk mikropolitikak eragin ditzake, herritarren parte-hartzeko eskolak bultzatu. Taldekoa, kolektiboa sustatu eta babestu indibidualtasunaren aurrean.

Jakintzen elkarrizketa. Solasean eta elkarrizketan dauden jakintzak. Funtsezkoa da akademiak bere talaiatik baztertu eta barrengarri utzi dituen hainbat jakintzari errekonozimendua ematea, gizarte-eraldaketa gerta dadin. Unibertsitateko botere-harremanak zalantzan jarri behar ditugu, eta haren kolonialismo intelektual arazo bihurtu. GEHk bi norabideetan nola hitz egin dezakegun galdetzen du, nola jarri balioan loturen jakintzak eta erresistentziaren jakintzak.

Interseksionalitatea. Zapalkuntza eta pribilegio guztien arteko lotura eta harremanak ikertzeko erronka egiten digu ikuspegi interseksionalak. Feminismo herritarrek, beltzek, baseritarrek, mestizoek eta chicanos, besteak beste, galderak egiten dizkigute botere-harremanei buruz, nola aritzen diren eta nola intersektatzen dituzten hierarkiak, eta gonbita egiten digute horiei aurre egiteko proposamen praktikoak eta ekintzak aurkitzeko.

Elkarrizketa horizontalak. Ahaleginak egin berdintasunezko elkarrizketak abian jartzeko, eragile gizarteratzaile nagusiengandik ikasitakoa desnaturalizatzen lagunduko duten parte-hartzeko eskolak sustatu, bestetasuna enpatiarekin hartzeko.

Antirrazista, antikapitalista eta antipatriarkala. Hiru elementu dira, banaezinak, lotuak eta askatzaileak. Arrazismoaren aurkako ikuspegiak lotura estua du ikuspegi dekolonial eta interseksionalarekin, eta proposamen askatzaile eta eraldatzaile oro zeharkatzen du.

Uniformetasuna desikasi. Uniformetasuna desikastea; azken finean, aurrean dugun zereginak eskatzen digu aldaketarako zerumuga kolektiboak eraikitzen bidea egitea. Lurralde- eta subjektu-aniztasunarekin loturak estutu, mundua interpretatzeko beste modu batzuk sortzeko eta bizitzaren jasangarritasuna defendatzeko, bazterrik gabea, erdigunerik gabea.

Inmaculada Cabello
Herritartasun Global eta Emantzipatzaileko Hezkuntzaren Koordinatzailea.
“Mujeres en Zona de Conflicto” GGKE.



Argazkia: Hegoa.



Aniztasun feministak, antirrazistak eta dekolonialak elkarri lotu. Hezkuntzan behar duguna

Juanjo Celorio Díaz. Deustuko Unibertsitatean Historia Modernoko eta Garaikideko ikasketak amaitzea lortu zuen (1976), nahiz eta espedientea ireki zioten “jarduera asanblearioetan” aritzeagatik. Ikasketak egin bitartean, Durangaldeko fabriketan lan egin zuen, eta bertan, sortzen ari ziren Ezkerreko Langile Komisionen antolakuntzan parte hartu zuen. 1977an, ibilbide akademikoa hasi zuen Gasteizko Irakasle Eskolan, Historiako irakasle gisa. Ondoren, Gizarte Zientzien Didaktikako irakasle izan zen ia 40 urtez, Euskal Herriko Unibertsitatean. Unibertsitatean, “PNNen mugimendua” eta “Oposizio kritikoa” zeritzenen partaide izan zen. 1989az geroztik, [Hegoako Hezkuntza taldeko kide da](#), eta ekarpen nabarmenak egin ditu hezkuntza kritikoa ikuspegi birbideratu duten planteamendu teorikoetan (Garapenerako Hezkuntzan, Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzan...).

Amaia del Río Martínez. Kazetaritza eta soziologian lizentziaduna da, eta “Garapena eta Nazioarteko Lankidetzak” eta “Generoa eta Garapena” masterrak egin ditu. Hegoa Institutuaren Hezkuntza taldeko kide da; bertan, zenbait ekintza-esparrutan hezkuntza emantzipatzaileak duen presentzia indartzeko hausnarketetan eta esperientzietan parte hartzen du. Jarduera horren esparruan, ikerketa eta pentsamendu kritikoa feministak eraikitzeke espazioak sustatu ditu. Gaur egun, [Hariak. Recreando la educación emancipadora](#) aldizkaria koordinatzen du. Boterea etengabe zalantzan jartze duten ikuspegiak dira mundua pentsatzeko gehien interesatzen zaizkionak.

Aniztasuna mundu-ordenan

XXI. mendearen lehen laurdenean eta globalizazioak markaturiko testuinguruan, gizarteek bizi dituzten tentsio eta krisien gorakadak gonbita egiten digu aniztasuna eta haren ikuspegiak hezkuntza ahalduntzaile eta askatzaile baten ikuspuntutik begiratzeko. Hainbat krisi, tokikoak eta dimentsio globalekoak, hainbat esparrutan islatzen direnak: kliman, gunee kolonialetatik gero eta hurbilago gertatzen diren gerretan, “nazioarte” delakoak baimendutako genozidio basatietan, botere politiko eta ekonomikoaren gunee berrien sorkuntzan, errealitate berrietan (inteligentzia artifiziale, adibidez), pertsonak, natura eta kulturak merkantzia bihurtzen dituen merkantilizazio kapitalistan –gero eta larriagoa... Horiek guztiek osatzen dute Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH) teorizatu eta bideratzeko markoa, eta antropozenoaren garaian hedatzen ari den gai baten aurrean kokatzera behartzen gaitu: aniztasuna, gizarte-harremanen esparru eta eskala guztietan. Aniztasuna gizateriaren alderdirik unibertsalena da. Hala ere, aniztasun bortxatua da, globalizazio kapitalista hura kontrolatzen saiatzen baita modu kolonial, zentralizatzaile eta uniformizatzailean.

Zibilizazio-krisi baten sintomez hitz egitera garamatzaten kontraesan sakon horren ezaugarri batzuk aurreratuko ditugu. Izan ere, joan den mendeko azken herenetik aurrera, eta modu intentsuagoan XXI. mendearen lehen laurden honetan, zientzia esparrutik zein gizarte- eta hedabide-mugimendu kritikoetatik behin eta berriro esaten ari dira zibilizazio-krisi deitu izan zaion krisi multzo hau larria dela. Kontrajarriak ageri dira, batetik, merkataritza-globalizazioaren dinamika azeleratuak, eta, bestetik, pertsonen eta kolektiboaren eskubideen (ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak) urraketak eragin dituzten gizarte- eta kultura-tentsio eta istiluak.

Gizarte estratifikatuetan, ekonomia-, politika- eta kultura-boterea biztanleen kontrol demokratikotik kanpo dagoenez, askotariko identitate-krisiak jasaten dituzte, bai eta orainaren eta etorkizunaren norabidea galdu ere.

“Aniztasuna gizateriaren alderdirik unibertsalena da. Hala ere, aniztasun bortxatua da”

“Gizarte-artikulazioak etnia, klase, genero eta adinen aniztasunean oinarrituta eraikitzen dira...”

Aniztasunaren dimentsioetan murgiltzen bagara, heterogeneotasun handiko esparru ekonomikoa aurkitzen dugu: posgarapeneko ekonomia kapitalistatik hasi eta “garapen bidean” dauden gizarteetaraino, edota askotariko hausturak dituzten ekonomia komunitarioetaraino. Ekonomia- eta gizarte-aniztasun horiek ez dira modu ekitatiboan erlazionatzen; aitzitik, ondasun, baliabide eta eskubideen birbanaketan berdintasunik eza da nagusi. Esparru guztiak pribatizatzen dira, zerbitzu publikoak ere bai, eta multinazionalak dira protagonista. Horixe da larriena: dena merkantilizatzeko aukera horretan, pertsonak eta haien eskubide eta identitateak ere merkantilizatu egiten direla, kultura, artea, zientzia, eta are ideologiak ere. Gorputzak, mezuak, lehentasunak, lurraldeak, identitateak... dena eraldatzen saiatzen dira, eliteen eta botere ez demokratikoen interesen probetxurako.

Gizarte-aniztasunik ere bada. Gizarte-artikulazioak etnia, klase, genero eta adinen aniztasunean oinarrituta eraikitzen dira... eta horren emaitza aniztasuna da, balioak, arau eta lege-erregulazioen aniztasuna. Konbinazio horrek boterearekiko hainbat interakzio modu aurkezten ditu, bai eta hainbat lotura mota ere, eta oraina eta etorkizuna ulertzeko moduak ere askotarikoak dira. Gizarte-gaiak homogeneotasunezko eta heterogeneotasunezko konplexutasun handian eta profil aniztasun handian egituratzen dira.

Aniztasuna esparru politikoan ere islatzen da. Ez dira demokraziak eta erregimen autoritarioak soilik bereizten, tarteko formulak ere ageri dira, hegemoniaren inposaketaren forma sinboliko eta/edo zapaltzaileak barne. Botere globalizatzaileak erabiltzen dituen berdintasunik gabeko interakzioez gain, oso anitzak dira pertsona, kolektibo eta/edo komunitateek botererako eta erabakiak hartzeko esparruetan artikulatzen dituzten kontrol- eta eragin-ahalmena gauzatzeko moduak. Horri gehitu behar zaio aurreko mendean gailendu zen planeta mailako bipolaritatearen eta gorantz doazen herrialdeen XXI. mendeko multipolaritatearen arteko bide zaila.



Ilustrazio: Ania Sáenz de Buruaga.

Horren guztiaren emaitza da konplexutasun-aniztasun zabala, kultura, hizkuntza, erlijio-identitate, komunikazio-interakzio, balio eta sinesmenena, eta eguneroko bizitzaren forma sinboliko, artistiko eta ikuspegiarena. Mugak gainditzen dituen kultura-aniztasuna da; zenbait lurraldetan haren kudeaketa beti ez da inklusiboa eta baketsua, botereak eta globalizazioak ere kultura ukitzen baitute. Kultura-aniztasunak tentsioan jartzen ditu harreman multikulturalaren politikak, logikak eta dinamikak.

Esan izan dugun legez, aniztasun horrek botere globalizatzaileei eta eredu inposaketarako modu biolentoei aurre egin behar die, eta horien ondorioa gatazkak dira –esplizituak edo ezkutuak– hainbat esparru eta eskalatan. Globalizazio horrek, halaber, hainbat formatu eta mailako krisiak areagotzen ditu.

Botere-erregimen zaharrak eraldatzeko eta bukatzeko indar gisa sortu zen kapitalismoak planeta aldatu du. Haren hedapenak sortzen dituen joera arriskutsuek egoera erabakigarrietan kokatu dute gizateria: eredu gainditzea, edo haren eroaldiak bizitza bera eta zibilizazioa ezabatuko dituela onartzea. Hori da erronka eta, aldi berean, kontraesana.

Kulturartekotasun kritikoa, erantzun bat monokulturalismoaren eta multikulturalismoaren aurrean

Nola eraldatu aniztasuna ondasun kolektibo publikoan, gizarteak kohesiona ditzan eta aldi berean ahaldundu, kaosaren eta globalizazio hegemonikoaren joerei aurre egiteko. Hori da esperimentazioaren eta ikerketaren bidez ikasi beharrekoa. Lehen hipotesia da kultura, hezkuntza eta identitateen artean hiru alde dituen interakzio prozesu bat behar dela, eta kulturartekotasun kritikoa haren kudeaketa-lokarria izan behar duela.

Kulturartekotasuna kultura-harremanen bi kudeaketa-politikari kritikoki aurre egiteko sortzen da: monokulturalismoa eta multikulturalismoa. Horietako bakoitzak hezkuntza-ikuspegi propioa du.

Monokulturalismoaren oinarrian, kulturaren kontzeptzio hau dago: elite klasista, arrazista eta sexista jakin batzuek planetako alde “zibilizatueta” eraiki zuten garapenaren adierazpen gorena da, eta atzerapenaren, sinesmenen, subjektibitateen eta emozionaltasunen kulturatik bereizten ditu elite horiek. Ikuspegi hori zientziaren irudi efizientista, positibista eta neutralean oinarrituta dago, eta kapitalismoaren gizarte-aurrerapen eta -arrazionaltasunaren zerbitzura. Monokulturalismoa, Estatu nazionalak eraiki, erreproduzitu eta hedatu behar zituzten ekoizpen moduei oso lotua, eta horretarako erakunde estrategiko baten laguntza zuena: hezkuntza sistema nazionala eta bateratze kulturalerako politika nazionalak. Ideala Estatu nazio bat zen, kultura bakarra, gizarte bakarra, herrialde bakarra, nazio-identitate bakarra. Horretarako, ezinbestekoa da identitateak, jakintzak eta gizarte-harremanak gako berri horietatik abiatuta berreraikitzea. Lan hori egiteaz arduratzen ziren pentsamenduaren eliteak, hezkuntza, komunikazioa eta erakunde eta politika uniformizatzaileak.

Alabaina, ez zuen erabat funtzionatu, ez efizientzia eta potentzial bakegile eta integratzaile nahikoarekin, bederen. Kultura-aniztasunak intentsitate handiago edo txikiagoko gatazkak eragiten zituen, eta politika eta ikuspegi monokulturalistek ez zuten aniztasun hori ezabatzea lortzen. Hala, beste ikuspegi bat sortu zen: multikulturalitatea. Une horretan gertatzen ari zena adierazi nahi zuen, eta

bidenabar, kultura-kudeaketarako politika efizienteagoak garatzeko proposamen berri gisa agertzen zen, liskarrak eragozteko.

Multikulturalitateak berdintasun handiagoko ikuspegia ematen dio kulturaren esanahiari. Historian zehar, eta gizartea aintzat hartuta, pertsonak eta komunitateek kultura-prozesu desberdinak garatzen dituzte halaberrez, eta horiek identitatea ematen diete, bai eta munduarekin (eta pertsonen artean) erlazionatzeko eta ulertzeko modu sinboliko bereziak ere.

Monokulturalismoari egindako kritika epistemologikoa da. Kulturaren eredu uniformeak definitzen dituen monokulturalismoaren ikuspegi positibista eta/edo neopositibistaren aurrean, multikulturalitateak, babestua eta aintzat hartua izateko eskubideaz gain, gizarte inklusiboak eratzeko osagai politiko eta/edo hezkuntzako hartzen du bere baitan. Horrez gain, tradizio multikulturalak onartzen du monokulturalismo positibistak bilatzen zuen kultura-objektuaren urruntze, objektibotasun eta neutraltasuna baino, kulturen ikerketa zientifikoak hurbiltzea eta murgiltzea eskatzen duela, identitate-, emozionaltasun-, komunikazio-, sinbolismo- eta berezitasun-prozesu biziak ulertzeko –beren subjektibotasun eta balio osoan–. Kultura-ekintza bizimodu sentitu, bizi eta partekatu bat bezala ulertzen da eraikitzen duen komunitatearen baitan, eta, aldi berean, kultura hori bere eta espezi-fiko moduan bizi, sentitu, definitu eta baloratzen du. Kulturak soilik paradigma ulerkerretatik hauteman daitezke. Bizi, sentitu, adierazi eta partekatutakoa ezin da kanpoalde urrun eta estandarizatu batetik deskribatu, barnetik baizik, non sentitu, interpretatu eta zentzua ematen zaion.

Hala ere, gutxira, politika multikulturalek beren mugak erakutsi zituzten, bai esparru teorikoan, bai praktikoan. Ikuspegi epistemologiko, politiko eta hezkuntzako berri bat sortzen hasten da: kulturartekotasuna.

Kulturartekotasuna aipatutako bi korronteen aurka dago: monokulturalismoaren eta multikulturalismoaren aurka. Monokulturalismoaren xurgatzeak eta biolentzia uniformizatzaileak gizarte bidezkoago eta inklusiboagoak eraikitzea eragozten duela kritikatzan du, baina, halaber, multikulturalismoa ere kritikatzan du, kulturaren arabera komunitateen artean urruntzea eta bazterkeria

bultzatzen dituelako, baina baita haren oinarri epistemologikoengatik eta kulturaren kontzeptuengatik ere.

Kulturartekotasunaren epistemologiaren arabera, erakuntza historikoen bizitzan eraiki eta erreproduzitzen den produktu sozial eta sinbolikoa da kultura. Gizarte-ezagutza eta -prozesu oro, jokoan dauden interes eta estrategien botere-harreman desorekatu eta antagonikoetan eta haiek baldintzatuta, sortuta eta sozializatuta bideratzen da. Ezin da sortzen, bilakatzen eta sozializatzen den baldintza, egitura eta prozesuetatik kanpo definitu. Baldintza, egitura eta marko sinboliko horiek deskribatu eta ulertu egin behar dira; baina ez hori bakarrik, hegemonia eta haren botereen eduki eta estrategia direlako egin behar zaie kritika; izan ere, hegemoniak klase eta menpeko maila guztiei inposatzen dizkielako baldintzak, eta menpekotasuna erreproduzitzea lortzen du horrela.

Kulturak eraikiak eta dinamikoak dira, eta elkarri eragiten diote. Kulturartekotasuna ikuspegi analitiko bati lotuta dago; izan ere, haren eraikitze-prozesuak, interesen logikak, berrordenatzen dituzten subjektuak eta gizarte-inplikazioen nondik norakoak aztertu egin daitezke. Prozesu historikoan, kulturartekotasuna ez da teoria kritikorearen esparruko apustu bat bakarrik, eta, ondorioz, kultura botere eta kontraboterearen ikuspegitik aztertzea eskatzen duena (kulturartekotasun kritikoa). Aitzitik, beste subjektu eta interes batzuen ikuspuntua aintzat hartzeko duen konpromisoagatik, begirada emantzipatzaile eta interseksionaletatik abiatuta geure buruari galdera egitea eskatzen du, klase, genero, etnia, kolonialitate eta abarren ardatzak zeharkatuz. Zentzu horretan, apustua ez da kulturartekotasun kritikoa bakarrik; feminista, antirrazista eta dekoloniala ere kontuan hartu behar da.

Ildo ahalduntzaile eta askatzailean aurrera egiteak hezkuntza-politika kulturarteko, antirrazista, feminista eta dekolonialen aldeko apustua egitea dakar. Formetatik haratago, curriculu-

« Kulturartekotasuna aipatutako bi korronteen aurka dago: monokulturalismoaren eta multikulturalismoaren aurka »

“ Gaur egun gizarte-aldaketako prozesuetan pentsatzeak proiektu modernizatzaile biolentotik aldentzea eskatzen du ”

maren eraldaketarako politikak hezkuntza-sistemetan eta hezkuntza-jardunbideetan; gizarte-interakzioek ikaskuntza eragiten duten eta gizarte-mugimendu eraldatzaileekin aliantzak sortzen diren espazio guztietan. Ikaskuntza esparru horietarako, kulturartekotasun kritikoak aniztasuna eta askotariko identitateak aintzat hartzea proposatzen du, beste ezagutza eta jakintza batzuk integratzeko eta desberdintasuna, munduarekiko begirada aberasteko osagai izan ordez, mehatxu gisa ulertzen duen imaginario kolektiboa indargabetzeko.

Edonola ere, lau alderdiri erreparatu behar zaie: kulturartekotasunari ematen zaion ikuspegia eta haren hezkuntza-ikuspegia (feminista eta dekoloniala); aldi berean dauden beste kulturen inguruan zer estrategia erabiltzen den orientazioari eta aintzat hartzeari dagokionez (ezagutza, jarrerak, sinesmenak); kultura-aniztasunaren ku-



Ilustrazio: Ania Sáenz de Buruaga.

deaketa bai hezkuntza-sisteman, bai sozializazio-, komunikazio- eta kultura-harremanetan; eta, azkenik, alor honetako ikerketa espezifikoak, aniztasuna ahaldunduz eta emantzipazio-iturri bilakatu dadin. Kulturartekotasun-trantsizio ekosozial, inklusibo eta feministarako inspirazio kritiko izan behar du. Gizakiak eragindako planeta mailako krisiak gizakiaren erantzun globala eskatzen du, botere suntsitzailearen ordez botere berreskuratzaile, jasangarri, bidezko eta indarkeriarik gabeko nagusitu dadin.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren estrategia eta haren ekarpena trantsizio ekosozial, feminista eta dekolonialaren alde

Trantsizio ekosozial, feminista eta dekoloniala aurrera eramateak menperatze-harremanek nola funtzionatzen duten ulertzea eskatzen du, eta ulermen horren ondorioz gizarte-erlaldaketa aktiboa bideratzea. Gaur egun gizarte-aldaketako prozesuetan pentsatzeak proiektu modernizatzaile biolentotik aldentzea eskatzen du, bai eta giza eta natur-sistemen arteko harreman berriak abian jartzea ere. Norabide askatzaile bideratutako ezagutza eskatzen duen eraldaketa sakona. Zentzu horretan, GEHk funtsezko egitekoa du: ezagutza, botere izatetik, zapalketa, berdintasunik eza eta bidegabekeria sortzen duten egiturak eta dinamikak aldatzeko botere izatera pasatzea posible egiten du. Jarraian, aniztasunaren erronkekin lotzen diren hezkuntza-proposamenaren postulu batzuk aurkeztuko ditugu:

• Garapenaren balioak desikasi eta eraldaketaren pentsamendua posible egin

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza garapen-ereduaren porrota agerian jartzen duen proposamena da, eta orden hegemoniko kapitalistari eta haren balioei aurre egiten die.

Kapitalismoa natural eta arrunt egin dugu, eta, ondorioz, sistemaren erreproduzioaren zerbitzura dauden logika produktibistetan oinarritutako ezagutza eta ekintzak ontzat ematen ditugu. Kapitalismoaren proiektuak kultura-kontakizun bat eraiki du, pertsonen eta gizartearen bizimoduan eragina izan duena. Horregatik diogu politika- eta

hezkuntza-proiektua dela aldi berean. Garapen horrek globalizazio kapitalistaren fasean eragin duen errealitate biolentoa eraldatzeko, ezinbestekoa da mundua interpretatzeko modua aldatzea.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak atea irekitzen dio beste modu batera eraiki, bizi eta elkarrekin bizitzeko aukeraren pentsamenduari, justizia, duintasuna, aniztasuna eta jasangarritasunaren printzipio etikoetan oinarrituta. Mundua kolokan jarri eta eraldatzeko lehen urratsa barneratu ditugun kultura- eta hezkuntza-eredu neoliberalak zailtzan jartzen hastea da (indibidualtasuna, lehia, pilatzea, hiperkontsumoa, uniformetasuna, arrakasta soziala...).

Desikasteko gai garrantzitsuenen artean konformismoaren ideia dago. Sozializazio hegemonikoak bizi-proiektu posible onena garapena dela erakusten digu, eta sistemak erantzun zientifiko eta teknologikoak eskainiko dituela krisitik ateratzeko. Eraldaketaren pentsamendua posible egin eta errealitatea ez dagoela erabakita ezagutzera eman behar dugu. Bizitza suntsitzen duen garapen-eredu agortu hori desikasteko estrategiak dira besteak beste: eskolan eta Unibertsitatean esperientzia demokratiko eta alternatiboak probatzea, beste espazio batzuetan elkarbizitzako gizarte-proiektuak eraikitzea.

• **Kolektibotasunaren zentzua berrikasi eraikuntza komunitarioa bultzatzeko**

Modernitatearen proiektuak komunitateak desgaturatu ditu, eta, ondorioz, galdu egin da gizarte demokratiko, bidezko eta jasangarrietan gizarte-loturek duten garrantzia. Kapitalismoak kontsumoaren kulturaren nahikerietara murrizten ditu herritarren betebeharrak. Kontsumoak gizarte-konexiorik eza indartu eta arduragabekeria moralaren kultura sustatzen du.

Gizarte-proiektu kolektiboak behar ditugu, kapitalaren etekin indibidualistaren aurrean komunitarioa defendatuko dutenak. Gure elkarbizitza eta naturarekin harremana nola antolatu imajinatze-ko gai izan behar dugu. Horretarako, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren ikuspegiak dimentsio etikoa berreskuratzen du, gaurko mundu anitzean gizarte-erantzukizunak duen esanahiari buruz hitz egin ahal izateko. Funtsean, gizabanakoak albo batean ez geratzera gonbidatzen ditu, jarrera bat

hartu eta beren komunitatearen ongiarekin konprometitu daitezten. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak eraikuntza komunitarioa bultzatzen du eta guztiona den horrekiko gizarte-erantzukizuneko kultura baterantz zuzentzen da.

Ikasgelarako –eta handik kanpo ere bai– interes handiko gogoeta hori aspalditik jakintza komunitarioa eraikitzen ari direnekin (gizabanako, erakunde eta gizarte-mugimendu anitzak) elkarriketan gertatu behar da ezinbestean, haien praxi eta lurraldeetatik abiatuta.

• **Boterea eta agentzia duten gizabanakoak sendotu, aldaketaren protagonistak izan daitezten**

Ezagutza kritikoak, bere ahalduntze botereak legitimatuta, gizarte-eraldaketaren zerbitzura jarriko duten subjektuak behar ditu. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak boterea eta agentzia duten subjektuak eraiki nahi ditu, gizarte-aldaketako benetako prozesuak aurrera eramateko gai direnak.

Agentzia kontzientziazio-prozesu bat da, eta gure bizitza zeharkatzen duten zapalketak identifikatzeko eta sistema kapitalista, heteropatriarkal eta kolonialari aurre egiteko estrategia kolektiboak garatzeko gai izanda, geure burua subjektu aktibo gisa eraikitzea garamatza. GEHren proposamenak kontzientziazio kolektiboko prozesuak bultzatzen ditu, aldaketa-subjektuak indartzeko, eta, aldi berean, subjektu plural, zeharkako eta eraldatzaile baten eraikuntza defendatzen du. Ekintzan dauden subjektu eta kolektiboen aniztasunari esker, ezagutzara gerturatzeko modu anitz uler ditzakegu, bai eta giza emantzipazioko esperientziak sortzeko askotariko aukerak daudela ere.

Testuinguru horretan kulturartekotasun kritikoak esanahi garrantzitsua hartzen du, errealitatearekiko begirada aberasten baitu eta desberdina mehatxu gisa interpretatzen duen imajinario kolektiboa


“Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak atea irekitzen dio beste modu batera eraiki, bizi eta elkarrekin bizitzeko aukeraren pentsamenduari”

ahuldu. Kulturartekotasun kritikotik abiatuta subjektu anitzak eraikitzeke apustua egitean: i) ez gara gainerako kulturetako “besteen” idealizazio eta erromantizismoan erori behar; ii) kontziente izan behar dugu “gure” artean homogeneitatearik ez dagoen bezala, “besteen” artean ere ez dagoela; iii) “gu/haiek” aurkaritza dikotomikoa gainditu behar dugu, desberdintasuna ez baita “besteena” ez beste inorena den ezaugarria, eta homogeneitatea ez baita “gure” ezaugarri intrintsekoa.

• **Ezagutza bakarraren ideia kolokan jarri, kultura-testuinguru anitzetan sortutako ezagutzak eta gizarte-kolektibo anitzek ekoiztutakoak berreskuratzeke**

Modernitatearen proiektuarekin, geure gain hartu dugu ezagutza bakarra eta ezagutzara hurbiltzeko modu bakarra daudela dioen ideia konbentzionala. Ezagutza zientifikoa ezagutza eredu bakarra dela dioen ideiare aurre eginda, egia absolutuei mesfidantzaz begiratu eta ezagutzara hurbiltzeko modu asko daudela uler dezakegu.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren proposamenak curriculumean alboratutako beste ezagutza batzuk berreskuratzearen aldeko apustua egiten du. Gizarte-aldaketarako ezagutza garrantzitsua eraikitzeke, garrantzirik gabekotzat joak izan diren beste subjektu batzuen historia aintzat hartu behar da. Hau da, gizarte-mugimendu eta -erakundeen ezagutzak, eta historia- eta kultura-testuinguru anitzetako ezagutzak. Ezagutza horiek zien-



Ilustrazio: Ania Sáenz de Buruaga.

tzia arrazional, objektibo eta unibertsaletik urrundauden marko epistemikoak bultzatzen dituzte eta lurraldeetako esperientziekin eta gizarte-borrokekin lotutako hezkuntza-, ikerketa- eta ekin-tza-estrategiak garatzen dituzte.

Gizarte- eta herri-mugimenduen historiatik ikasi behar dugu, eta haien borroka eta erresistentziatik, Unibertsitatean sortzen den ezagutzarekin lotzeko. GEHk ezagutza horiek balioan jartzen ditu, goi-mailako irakaskuntzan periferikoak direnak, eta ekoizpen akademiko eta gizarte-ekoizpenaren artean elkarrizketa sustatzen du.

• **Pedagogia kritikoak sartu; adibidez, feminista interseksionalak eta antirrazistak eta dekolonialak**

Teoria eta pedagogia kritikoak aliatuak dira kapitalismo kolonial eta patriarkalak nola funtzionatzen duen agerian uzteko prozesuan, eta bizi-aukeren eraikuntza errazten dute aldi berean. Teoria kritikoari esker, gizarte-ekoizpena kultura eta zientziaren esparruan sartu ahal izan da, eta, hala, ateak ireki zaizkie gizarte-eragileei.

Gizarte-mugimenduen borroka eta erresistentziak (adibidez, mugimendu feminista, antirrazista, mugimendu indigenak, etab.) hainbat erresistentzia- eta emantzipazio-ikaskuntza erakutsiz doaz. Kapitalismoa gainditzeko prozesu oro deskolonizatzailea eta despatriarkalizatzailea izan behar da aldi berean, eta, hori ulertzeko garaian, pedagogia feminista interseksionala eta pedagogia antirrazista dekolonialetan jartzen dugu arreta.

GEHren proposamenean funtsezkoa da oinarri feminista kritikoetatik eraikitako ezagutza. Ezagutzaren ekoizpen-, transmisio- eta antolaketa-prozesuak sostengatzen dituzten ideologia hegemonikoei aurka egiten dieten proiektu politikoetan eratzen dira feminismoak.

Feminismoen abiapuntua desberdintasunak aintzat hartzea eta aniztasuna onartzea da. Desberdintasunaren errespetuan eta identitateen aniztasunean jartzen dute enfasia feminismo kritikoek. Aniztasunaren trataera sentikorrak perspektiba feministak ikuspegi interseksionala hartzea eskatzen du, generoarekin batera bizitzan eragiten du-

“Indarrean jarraitzen dute arraza-irizpideetan oinarritutako ezagutzaren hierarkiek”

ten boterearen eta menderatzearen beste ardatz batzuk identifikatuta (klasea, etnia, adina...).

Bestalde, indarrean jarraitzen dute arraza-irizpideetan oinarritutako ezagutzaren hierarkiek. GEHK gogoeta kritikoa sortzen du kolonialitatearen boterearen patroipean eraikitako gure imajinarioan. Kolonialitatearen ondorioz, desberdintasunak berdintasun gabezia bihurtzen dira eta “bestea” menperatzea legitimatzen dute.


Kolonialitatea desikastea funtsezkoa da Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren proposamenean. Hezkuntza-prozesuetan kolonialitatea gainditzeko elementu interesgarriak dira honako hauek: i) Mendebaldetik egiten diren diskurtso arrazializatuak zalantzan jartzea; ii) aniztasuna, desberdintasuna eta konplexutasuna ezagutzaren ezaugarriak direla ulertzea, eta horizontaltasun mailan daudela, ez maila hierarkikoetan; iii) beste lurralde, herri eta gizarteetako kolektibo batzuen marko epistemikoak aintzat hartzea; iv) pedagogia antirrazista ikastea, gure imajinario eta diskurtsoetan eurozentrismoa eta menperatze-kutsuak eragozteko.

• Aliantza eta sare anitzak bultzatzea

Garapen-eredu hegemoniko horri aurre egiteak sarean lan egitea, aniztasunetatik abiatuta artikulatzea eta aliantzak eratzea eskatzen du, botereari aurka egiteko hezkuntza-estrategia gisa. Frogatuta dago: erakunde, gizarte-mugimendu, GGKE, akademia, administrazio kritiko eta abarren arteko aliantzak eta sareak funtsezko tresnak dira gizarte aldatzeko.

Indar kolektiboen eraikuntzan eta zabalkuntzan inor ez dago sobera. Ez dugu akademia estigmatizatutako behar, unibertsitatean sortzen diren proiektu askok hezkuntza kritikoa ez dutela babesten jakin arren. Beharrezkoa da akademia eraldatzea eta beharrezkoa da komunitate kritiko bat, teoria berri-eratzeko eta gizarte-prozesuekin eta borrokekin sinergiak ezartzeko gai dena.

Bestalde, bizitza justu, jasangarri eta feministako esperientziak garatzen ari diren gizarte-mugimenduekin (nazioartekoak eta tokikoak) konpromiso eta aliantza sendoak indartu behar ditugu. Kolektibo horiekin sareak eta aliantzak eraikitzeak posizio kritikoago batean kokatzen gaitu, hezkuntza-proiektuaren deskolonializazioa eta despatriarikalizazioari aurre egiteko eta bizitza antolatzeko beste modu batzuk aurkezteko, planeta honetan, esplotazio eta menderatzeetik aske. Beste batzuen aniztasuna “-rekin geure burua eraikitzeak” botere kontrahegemonikoa handitzen du, eta gizartean eragiteko toki estrategikoan kokatzen gaitu.



Ilustrazio: Ania Sáenz de Buruaga.



Irudia: Iris Murillo.

Oso garrantzitsua da Europak ere bere burua pentsatzea

Lia Pinheiro Barbosa. Latinoamerikako Ikasketetan doktorea da, Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoaren eskutik. Soziologoa eta Soziologiako irakaslea da. Soziologiako Graduondokoan eta Hezkuntzako eta Irakaskuntzako Master Akademikoan eskolak ematen ditu, Crateúseko Hezkuntza Fakultatean, [Universidade Estadual do Ceará](#) unibertsitatean (Brasil). Bere ikerlanetan, hainbat gai jorratu ditu, besteak beste: hezkuntza; indigenen eta nekazarien mugimenduak, lurraldearen eta komun defentsarako prozesuak; ezagutzaren epistemologiak Latinoamerikan eta Kariben; Latinoamerikako pentsamendu pedagogikoa; eta emakumeen borrokak eta feminismoak Latinoamerikan. Horrez gain, [Alternativas Pedagógicas y Prospectiva Educativa en América Latina](#) (gaztelaniaz, APPEAL) [programako](#) eta [Gizarte Zientzien Latinoamerikako Kontseiluko](#) (gaztelaniaz, CLACSO) kide da, “Economía Feminista Emancipatoria” eta “Anticapitalismos y Sociabilidades Emergentes” lantaldeetan.

Hezkuntza-proiektua etengabeko eztabaida-eremua da. Gaur egun, pentsatzeko aukera eman diguten ikasgaiak curriculumetik kentzen dituzten estrategiak ikusten ditugu; horrela, kapitalerako subjektu otzanak sortzen dituzte. Zure ustez, zer ikaskuntza-mota ari dira ezartzen Unibertsitatean? Zein da irakasleari eta ikasleari ematen zaien rola?

Lia Pinheiro. Brasilgo Lurrik Gabeko Mugimenduak asko erabiltzen du hurrengo metafora: unibertsitatea “jakintzaren latifundioa edo ezagutzaren latifundioa” dela pentsatzea. Metafora asertiboa da hori, Unibertsitateak historian zehar botere edo botere-jakintzarako espazio gisa izan duen lekua (elitista bilakatu dena) erakusten duena, erakunde jakin batzuen presentzia eta ezagutza jakin bat aitortzeko.

Hala ere, Latinoamerikako gure unibertsitate-esperientzietan behintzat, Unibertsitatearen zentzu-horizonteak eta espazioa bera herri mugimenduek lehiatu dituzte, gero eta gehiago sartzen baitira gradu eta graduondo desberdinetan. Horrek arazo bat dakar esparru teorikoei eta ikerketa-metodoei dagokienez, ikuspegi kritikotik eta beste subjektu sozial eta prozesu soziokultural eta politiko batzuen onarpenetik bereizita baitaude.

Problematika horrek tentsio dialektikoa eragiten eta sustatzen du ikaskuntzen izaerari eta irakaskuntza-rolari dagokienez: lehenik eta behin, hezkuntza- eta prestakuntza-zereginaren egunerokotasunaren alderdi praktikoak eta zehatzak eskatuko dizkiolako, baita beste jakintza batzuen aintzatespena eta ezagutza sortzea ere, beste eremu eta lurralde exogeno batzuetan bizitako bizitza- eta borroka-esperientzietatik abiatuta. Eta horrek elkarrizketarako prest egotea eskatzen du. Testuinguru horretan, elkarrizketaren bidez jakintzei buruzko elkarrizketa behar da, baita ikuspegi freiriaretik ere; izan ere, onartzen da ez dagoela gehiago jakiterik edo gutxiago jakiterik, eta ezagutza-prozesuak berak partaidetza-metodologia berriak erabiltzea eskatzen duela, beste ikuspegi analitiko batzuk agerian uzteko, lurralde horietatik datozenak eta ikaskuntza berriak eta kontzeptuak sortzeko prozesu sortzaileak dakartzatenak.

Bide hori prozesu bat da, eta Latinoamerikako unibertsitateetan, Unibertsitatean teoriaren, metodoaren eta subjektuen zabalkuntza ikusten dugu. Esate baterako, hainbat gaztetako, mugimendu indigenetako, nekazarietako, komunitate tradizionaletako eta hiri-ingurueta, kolektiboetako eta mugimendu feministetako, LGTBI+eko eta migrazioetako kide diren ikasleen presentziaren eta eraginaren ondorioz, besteak beste, hainbat laborategi eta ikerketa-gune sortu dira. Espazio horiek partaidetza-metodologia berriak eta esperientziak sistematizatzeke metodologia berriak lantzen dituzte. Metodologia horiei esker, ikasgelan edo ikerketa- eta hedapen-proiektuetan, irakasleen, ikasleen eta herri-mugimenduen arteko ikaskuntza aukera bat sortzen da, gizarte-errealitatea kritikoki aztertzeke eta interpretatzeke kategoria analitiko berrien sorrerarekin.

Prozesu horren emaitza zabaltasun analitikoa sortzea izan da. Hau da, Unibertsitatean ezagutza zientifiko zabal batetik ikasten dugu ezagutzaren

“Kontzeptu eta angelu berriekin, eta horiek Unibertsitateak lurralde-aniztasunarekin eta subjektu kolektiboekin dituen loturak estutzen ditugulako baino ez dira posible”

arlotan guztietan eta, era berean, irekitasun horretatik sortzen diren aurkikuntza zientifiko berriekin aberasten ari gara, kontzeptu eta angelu berriekin, eta horiek Unibertsitateak lurralde-aniztasunarekin eta subjektu kolektiboekin dituen loturak estutzen ditugulako baino ez dira posible.

Aipatu dudana bezala, prozesu bat da eta tentsio dialektiko bat dago, oraindik ere Unibertsitatean jakintza-arlotan batzuk ez daudelako irekitzeko prest, zientzia egiteko moduan “tradizioa” mantendu nahi dutelako eta, are gehiago, Unibertsitatearen “estatusa” jakintza-eremu jakin baten leku eksklusibo gisa mantendu nahi dutelako.

Hala ere, irekitzeko prest daudenak, asko ari dira ikasten: metodologia parte-hartzaile berriak sortzen, hizkera inklusiboa, beste matrize ontologiko eta epistemologiko batzuk sortzea, edota beste ikuspegi analitiko batzuk, hala nola genero-ikuspegia eta epistemologia feministak. Onuren artean, ikasgelan eta ikasgelatik haratago beste modu pedagogiko batzuk ere sortzen ari dira, hausnarketa-ekintza/gogoeta bizitzeko eta Herri Hezkuntza irakasteko modu pedagogikoak. Hori guztia hezkuntza eta politika prozesuak eraikitzeke pentsatua eta artikulatua egon behar da, emantzipazioaren bidean.

Latinoamerikako unibertsitate publikoak, bere historiako hainbat unetan, erreferentzia kritikoa izatea lortu du kapitalismo harraparienaren aurkerapenaren aurrean, eta hortik sortu ziren Herri Hezkuntzaren eta Ekintza Parte-hartzailearen Ikerketaren mugimenduak. Zure ustez, proposamen horiek gaur egun ere lekua al dute Unibertsitatean?

Lia Pinheiro. Nik baietz esango nuke, XXI. mendea horretarako une historikoa baita, batez ere gaur egungo agertoki politikoko herri mugimendu asko Herri Hezkuntza eta Ekintza Parte-hartzailearen Ikerketa bultzatu zituzten mugimenduen emaitza direlako.

Kapitalismoaren izaera espoliatzaileari, kolonialismoaren iraunkortasunari eta patriarkatuari kritika egin zaio Unibertsitatean, ikasleen eta irakasleen ahotsetik eta ekintzatik. Horiek herri kolektibo eta mugimenduetako kideak dira, edo, gutxienez, herri mugimenduek Unibertsitatean duten presentziak eragindako prozesu pedagogikoan ikasten dute.

Are gehiago, aurreko galderan erantzun dudana posible da, hain zuzen ere, Herri Hezkuntzaren eta Ekintza Parte-hartzailearen Ikerketaren herentzia historiko hori dela eta; izan ere, horri esker, Unibertsitateak hurbilpen estuagoa izan zuen herri-eremuarekin, eta jakintza-elkarrizketa horri hasiera eman zitzaion.

Zer-nolako eztabaidak sortu beharko genituzke akademian latitude horietan, memoria historikoa berreskuratzeko eta mendebaldeko paradigma zibilizatzaileari aurre egiteko? Hezkuntza emantzipatzailearen arloan lan egiten dugunok nola azal ditzakegu gure kulturaren hain finkatuta dauden diskurtso eta kontakizun horiek guztiak? Nola atera gaitzke modernitatearen ingurutik etorkizun emantzipatzaileak planteatzeko?



Irudia: Miguel Vega.

“Europako kontinentea ere heterogeneoa da, askotarikoa eta kontraesan historikoak dituena”

Lia Pinheiro. Parte hartzen dudan espazioetan planteatzen saiatu naizen hausnarketetako bat lotuta dago Europa kontinente homogeen gisa pentsatzeko edo bospasei herrialdetara (oro har, Frantzia, Ingalaterra, Alemania, Holanda, Italia, Espainia eta, batzuetan, Portugal) murrizteko tranparekin. Egia esan, Europako kontinentea ere heterogeneoa da, askotarikoa eta kontraesan historikoak dituena. Lehen hausnarketa horretatik abiatzen naiz galderari erantzuteko, bi arrazoi zehatzengatik: lehenik eta behin, Enrique Dusselek aztertutakoaren arabera, “Europaren mitoak” irauten duelako, eta horixe baita mendebaldeko paradigma zibilizatzailea sortzeko arrazoi historikoa, munduko hegoaldeko herrialdeetan Europaren kolonizazio-prozesuetatik abiatuta eta kapitalismoaren garapenarekin sakonduta. Bigarrenik, mito horrek Latinoamerikan indarrean jarraitzen duelako, “kolonialismo intelektual” baten ondorioz, Pablo González Casanovak eta Orlando Fals Bordak aztertu zuten.

Baina ideia hori mito horretan sinesten duen eta munduko hegoaldeko herrialdeekin ezarritako harreman geopolitikoan erreproduzitzen duen Europan bertan ere gertatzen da. Barnetik, Europako gizarteetako sektore jakin batzuetan errepikatzen dira, eta, bereziki, unibertsitateetan, oraindik ere beren burua zientzia unibertsal bat ekoizteko gune gisa hartzen baitute (ezagutzaren arlo desberdinetan), eta kolonialismo intelektuala indartzen duen eta munduko hegoaldeko unibertsitateekiko harremana hierarkizatzen duen jakitun-botere baten logikak erreproduzitzen baitituzte.

Prozesu historiko hori kultura aldetik errotuta dago, eta erronka zehatzak ekarri ditu hezkuntza-prozesu emantzipatzaileak pentsatu eta eraikitzeko, bai eskolan, bai unibertsitatean. Nire ustez, modernitatearen ingurutik ateratzeko, hasierako urratsa da mito horretaz jabetzea. Era berean, funtsezkoa da mito horrekin amaitzea eta onartzea Europa ere eskualde heterogeneoa dela, arazo historikoak ere agerian uzten dituzten prozesu kontraesankorren oinordekoa, dela munduko hegoaldeko herrialdeekin lotutako prozesu kolonialen ondoriozkoak, dela kontinente gisa bere

